



Genero indarkeria desagerraraztea: **GURE ARDURA**





GENERO INDARKERIARI AURRE EGITEKO GAKOAK




Secretaría de Mujer y Políticas Sociales Fesp-UGT

Genero indarkeriaren kasuan langile publikoek zer egin behar duten jakiteko gakoak, bai susmoak egonik indarkeria sufritu dela aitortu ez denean, bai indarkeria egon dela aitortu bada:

- 1.** Genero biolentzia gradualki agertzen da. Entzun iezaiozu emakumeari eta arazoaren garrantzia zein den ulertzen saiatu zaitez. Nola sentitzen den ulertzen saiatu zaitez eta, zer esanik ez, ez zalantzatu berak kontatzen dizuna.
 - 2.** Biktimak autoestimua galdu eta beldurra, errua nahiz babesgabetasuna sentitzen ditu. Azal iezaiozu bakarrik ez dela, gertatzen denaren erruduna ez dela, horrelako jokaerak gaitzesten dituzten pertsona asko daudela eta lagunduko dioten profesional asko daudela.
 - 3.** Biolentzia prozesu batean zehar erasotzaileak abusuzko jokaera bortitzak eta inoiz beteko ez diren damua eta promesak aldizkatzen ditu. Ez babestu erasotzailea, inoiz ez, ezta indarkeria justifikatzen saiatu ere. Ez dago inolako arrazoirik hori justifikatzeko. Ideia hori biktimari eta bere inguruari transmititu iezaiezu.
 - 4.** Indarkeriaren seinaleak identifikatzea garrantzi handikoa da. Biolentzia psikologikoaren ondoren abusu fisiko eta sexualak agertzen dira. Erasotzaileak damua mila aldiz erakusteagatik egoera aldatuko ez dela ulertzea oso garrantzitsua da. Genero indarkeriak ziklo bat dauka eta damua ziklo horretako parte bat da.
 - 5.** Ezer egiten ez bada abusuak areagotu eta larriagotuko dira: kontrola, abusuak, mehatxuak eta beldurrarazteak. Emakumea zenbat eta luzaroago biolentziazko giroan bizi, orduan eta ondorio psikologiko larriagoak pairatuko ditu berak eta bere seme-alabek.
- 

- 
6. Genero biolentzia ez da gertakari isolatu bat. Historikoki desorekatuak izan diren emakume eta gizonen arteko botere-erlazioen manifestazio bat da. Genero biolentziak gizonezkoak menderatzea eta emakumeak baztertzea ekarri ditu eta emakumeen erabateko garapena oztopatu du.
 7. Zigor-kodeak zehatzen dituen askatasun eta inpunitate sexualaren kontrako delituen artean hauek daude: sexu erasoak eta sexu abusuak. Horrelako delituak jazartzeko erasotako pertsonak edo, adingabekoa bada, bere lege-ordezkariek salatzea ezinbestekoa da.
 8. Jar ezazu biktima kontaktuan zerbitzu soziosanitarioekin. Lagun iezaiozu pertsonak egokiak aurkitzen. Eman iezaiozu kalitatezko informazioa honako gai hauei buruz: laguntza ekonomikoak, ostatura, eta abar. Itxaropen faltsuek frustrazioa, mesfidantza eta nekea sortzen dituzte.
 9. Gogoan izan genero indarkeriari buruzko informazioa eta aholkularitza emateko zerbitzu telefoniko bat existitzen dela: markatze laburreko 016 zenbakia. Mota askotako zalantza eta arazoak konpontzeko berehalako laguntza ematen du. Anonimo eta isilpekoa da eta zerbitzu horren ardura langilego espezializatuak dauka.
 10. Egoera berean dauden pertsonen laguntzeko baliabide publikoak eta emakumeen elkarrekin daudela jakinarazi iezaiozu. Era berean, genero indarkeria sufritu duten emakumeentzako 24 orduko gizarte-larrialdien zerbitzu bat dagoela esaiozu. Berarentzat edo bere seme-alaba adingabeentzat arrisku fisiko edo psikologikoak badaude epaitegian eska dezake Babes Agindu bat har dadila

11. Bere osotasun fisiko edo psikologikoa edo bere bizitza bera arriskuan egoteagatik bere familiaren egoitza utzi behar badu jakin ezazu inolako deliturik ez zarela egiten ari. Bera edo bere seme-alabak sekulako arriskuan badaude, Babes Aginduak BABESPEN OSOA eskaintzen die. Salaketa Poliziaren Egoitzan, Emakumeen Aurkako Indarkeriaren Arloko Epaitegian edo, beharrezkoa bada, Guardiako Epaitegian aurkez daiteke.
12. Genero indarkeriaren konplexutasuna ulertzeko orientazio, informazio eta prestakuntza zerbitzuak erabiltzeko aukera izatea funtsezkoa da enpresa batean tratu txarrak jasotzen ari den langileak behar duen laguntza eskaini ahal izateko eta bere eskubideak betetzerakoan enpresarekin sor daitezkeen gatazkak konpontzeko. Azkenik, emakumeei euren egoera konpondu eta euren lanpostuetan jarraituko dutela bermatzen dieten klausulak sartu behar dira lan hitzarmenetan. Existitzen diren harreta-protokoloak martxan jartzea oso garrantzitsua da genero indarkeriari buruzko detekzio, babespen eta zaintzarekin erlazionatutako agente sozial guztiak koordinatzeko.



www.fespugt.es